EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Igurikimenek hazkunde apala aurreikusten dute 2019an EB-27rako

Europar Batasuna-27ko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, udaberriko txostenean argitaratu baititu, EB-27ko ekonomiaren hazkundea %1,4an kokatuko da 2019an eta zertxobait bizkortuko da 2020an %1,7ra iritsi arte. Tasa horiek beherantz zuzendu dituzte aurreko txostenean argitaratu zirenak. Eguneratze horren oinarrian, 2018ko amaieran eta 2019ko lehen hilekoetan bizi den ahultasun ekonomikoa dago, espero zena baino biziagoa izan delako. Nazioarteko merkataritzari eta manufakturei buruzko adierazleek moteltzeko zantzu garbiak erakutsi dituzte, batez ere Euroguneko eremuan.

BPG. Europar Batasuneko aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldea	
	2018	2019	2020	2019	2020
Europar Batasuna-27	**2,1**	**1,4**	**1,7**	**-0,6**	**-0,2**
Erresuma Batua	1,4	1,3	1,3	+0,1	+0,1
Eurogunea	**1,9**	**1,2**	**1,5**	**-0,7**	**-0,2**
Alemania	1,4	0,5	1,5	-1,3	-0,2
Belgika	1,4	1,2	1,2	-0,3	-0,2
Espainia	2,6	2,1	1,9	-0,1	-0,1
Frantzia	1,6	1,3	1,5	-0,3	-0,1
Italia	0,9	0,1	0,7	-1,1	-0,6
Herbehereak	2,7	1,6	1,6	-0,8	-0,2
Portugal	2,1	1,7	1,7	-0,1	=
Beste herrialde garatu batzuk					
AEB	2,9	2,4	1,9	-0,2	=
Japonia	0,8	0,8	0,6	-0,2	+0,1

Iturria: Europako Batzordea.

Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Beste aldetik, Europar Batasuneko langabezia tasa beherantz zuzendu du %6,9ra eta %6,6ra arte, hurrenez hurren 2019rako eta 2020rako. Hala ere, langabezia tasa oraindik oso altua da Euroguneko herrialde kide batzuetan.

Eszenategi horretan, beheranzko arriskuak dira nagusi. Merkataritza alorreko tentsioek eta protekzionismoak motelaldia areagotu dezakete. Europar Batasunean, akordiorik gabeko Brexitak ere eragin negatiboak utzi ditzake hazkundean. Aitzitik, ziurgabetasunak agian ez du horrenbeste eraginik izango ekonomia eragileengan eta erresilientzia sortu daiteke barne eskarian.

Langabezia tasa. Europar Batasuneko aurreikuspen ekonomikoak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldea	
	2018	2019	2020	2019	2020
Europar Batasuna-27	**7,3**	**6,9**	**6,6**	—	—
Erresuma Batua	4,0	4,1	4,2	-0,4	-0,5
Eurogunea	**8,2**	**7,7**	**7,3**	**-0,2**	**-0,2**
Alemania	3,4	3,1	2,7	-0,1	-0,3
Belgika	6,0	5,6	5,3	-0,5	-0,6
Espainia	15,3	13,5	12,2	-0,9	-1,1
Frantzia	9,1	8,8	8,5	=	+0,1
Italia	10,6	10,9	11,0	+0,5	+1,0
Herbehereak	3,8	3,5	3,6	-0,1	=
Portugal	7,0	6,2	5,7	-0,1	-0,2
Beste herrialde garatu batzuk					
AEB	3,9	3,8	3,7	+0,3	+0,2
Japonia	2,4	2,3	2,2	-0,3	-0,3